

2009/2010 ikasturtean hamar unibertsitateko ikasletatik zortzi publikoan matrikulatu ziren

%94k gainditu zuen unibertsitatera sartzeko azterketa

2009-10 ikasturtean 62.773 gazte matrikulatu ziren Euskal AEko unibertsitateetan, Eustaten datuen arabera. Aurreko urtean baino %1 gutxiago matrikulatu ziren, azken 15 urteetako joerari eutsiz.

%56 Bizkaian aritu ziren ikasten, %27 Gipuzkoan eta %13 Araban.

Hamar ikasletatik zortzik unibertsitate publikoa aukeratu zuten. Proportzioa antzekoa da lehen eta bigarren mailako ikasketetan. Joera aldatu egiten da graduondokoetan: %55 publikoetan, %45 pribatuetan.

Matrikulatutako ikasleria, ikasketa motaren arabera. 2009-10 ikasturtea

	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Unibertsitateak (%)	
				Publikoak	Pribatuak
Guztira	62.773	28.293	34.480	78	22
<i>1. eta 2. zikloko matrikulatutakoak</i>	<i>55.088</i>	<i>24.888</i>	<i>30.200</i>	<i>84</i>	<i>16</i>
Lizentziaturak	24.775	9.205	15.570	85	15
Arkitekturak eta Ingenieritzak	7.510	4.942	2.568	76	24
Diplomaturak	13.816	4.015	9.801	85	15
Arkitekturak eta ingeniari- eta teknikoak	8.987	6.726	2.261	89	11
<i>Graduetan matrikulatutakoak</i>	<i>3.292</i>	<i>1.511</i>	<i>1.781</i>	<i>4</i>	<i>96</i>
<i>Gradu ondokoetan matrikulatutakoak</i>	<i>4.393</i>	<i>1.894</i>	<i>2.499</i>	<i>55</i>	<i>45</i>
Hirugarren ziklo	1.407	670	737	46	54
Master ofiziala	2.584	1.060	1.524	59	41
Doktoretza	402	164	238	66	34

Iturria: Eustat. Euskal AEko Unibertsitate-estatistika 2009/10

Ikasketa teknikoak aukeratu zituztenen %70 gizonetzkoak izan ziren; lizentziatura eta diplomaturetan matrikulatutakoen %66 emakumezkoak.

Unibertsitate-geletako generoaren arabera: ikasleen %55 emakumeak dira, %45 gizonak; hamar punturen aldea.


Emakumeak gehiago dira ikasketa-mota guztietan: lehen eta bigarren zikloan (%55); graduan (%54) eta graduondokoetan (%57).

Aldea, generoaz ari garela, espezializazioan azaldu zen. Mutilek ikasketa teknikoagoak aukeratu zituzten: 11.668 gizon, eta ikasketa beretan 4.829 emakume. Lizentziatura eta diplomaturetan 25.371 neska matrikulatu ziren, eta 13.220 mutil.

55.088 ikasle lehen eta bigarren zikloan aritu ziren; 3.292 graduari eta 4.393 graduondokoiari.

Hona hemen ikasketa jendetsuenak: Irakasle eskola (5.579), Industri ingeniariaritzaren teknika (4.941), Enpresa administrazio eta zuzendaritza (4.869), Enpresa-zientzien diplomatura (3.543), Industri ingeniariaritzaren (2.663), Zuzenbidea (2.454), Psikologia (2.184) eta Medikuntza (1.503).

Hamabi titulazio eskatuenak, sexuaren arabera. 2009/2010 ikasturtea



Iturria: Eustat. Euskal Aeko Unibertsitate-estatistika 2009/10

5.724 irakasle aritu ziren Euskal AEko unibertsitateetan

Euskal AEko unibertsitateetan, 2009/10 ikasturtean, 7.757 pertsonak lan egin zuten, hau da, zerbitzuen sektorearen barruan okupatutakoak %1,2k. Haietatik 3.552 emakumeak, %46.

5.724 irakasleen artean, gizonak %60 eta emakumeak %40 izan ziren. Administrazio eta zerbitzuetako langileak, 2.033.

Ekaineko Unibertsitatara sartzeko azterketak deituen %98k gainditu zituen

2010ean 9.957 gazte matrikulatu ziren Euskal AEn Unibertsitatara sartzeko azterketetan. 9.346k gainditu zituzten, %94k. Batez besteko nota, 6,8.

Ekaineko deialdian 8.102 izen-emate izan ziren; 7.950ek gainditu zuten, %98k. Uztailekoan, 1.692 izen-emate eta 1.409k (%83k) gainditu.

Deituen arteko 4.397, gizonak, eta 5.560, emakumeak. Emaizak, antzekoak: %94k gainditu; batez besteko nota, mutilek 6,7 eta neskek 6,9.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Matxalen Plagaro

Tel.: +34-945-01 75 99 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Unibertsitate-estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Unibertsitate-estatistikari buruzko datu-bankua